

## ZERBITZUAK EMAN EDO UDAL AGINPIDEKO JARDUERA ADMINISTRATIBOAK BURUTZEAGATIKO PREZIO PUBLIKOEN ORDENANTZA ARAUTZAILEA

### 1.Artikulua

Eranskinetako tarifetan adierazten diren zerbitzuak eskaini eta jarduerak burutzeagatiko prezio publikoak ezarri eta exijitzen dira Ordenantza honetako arauen arabera, haiek parte direlarik.

### 2.Artikulua

Ordenantza udal barruti osoan aplikatuko da.

### 3.Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoak, zerbitzu eta jardueren onura izan dezaketenek ordainduko dituzte.

### 4.Artikulua

Ordenantza honetan arautzen diren prezio publikoen tarifak, Eranskinetan datozenak dira.

### 5.Artikulua

Kopuru eskagarriak, eskatutako edo egindako zerbitzu edo jarduerak bakoitzagatik ordainduko dira eta dagozkien epigrafeetan aipatzen diren zenbatekoetan ezin zatikatuko dira.

### 6.Artikulua

Ordenantza honetan aipatzen diren zerbitzuen eskaintza edo jardueren burutzerako, Udal Administrazioari eskatu beharko zaio beren eskaintza edo burutzea. Zerbitzu edo jarduerak horiek emantzat joko dira, kasua balitz, Ordenantza honetan araututako prezio publikoak ordaintzeko baldintzapean eta behin luzatu ondoren, prezio publikoa ez ordaintzeak automatikoki zerbitzua ez eskaintzea edo jarduerak ez burutzea ekarriko du.

### 7.Artikulua

Ordenantza honetan araututako prezio publikoen ordaindu beharra zerbitzuaren eskaintza edo jardueraren burutzea hasten denetik izango da.

Hala ere, emandako eta luzatutako zerbitzuen eskaintza edo jarduerak burutzeagatiko kasuan, ordainketaren beharra dagozkien tarifetan jartzen diren epealdi natural bakoitzaren lehenengo egunean hasiko da.

### 8.Artikulua

Prezio publikoaren ordainketa kasu bakoitzean ezartzen diren baldintzen arabera egingo da.

### 9.Artikulua

Prezio publikoaren ordainketara behartuta dagoenari ezin egotzi zaizkion arrazoiengatik, jarduerak burutzen ez deneko kasuan, dagokion zenbatekoa itzuli egingo da.

### 10.Artikulua

Prezio publiko hauengatik zorrak premiamenduzko administrazio prozeduraren bidez eskatu ahal izango dira.

## AZKEN XEDAPENA

Ordenantza hau, bere Eranskinarekin batera, bertan adierazten den datan behin betiko onetsirik izan zen, 2009ko urtarrilaren 1ean sartuko da indarrean eta horrela jarraituko du aldatzea edo derogatzea erabakitzen den arte.

## ERANSKINA

Onarpena : 2008-12-22

A epigrafea: Haur dinamizazio zerbitzua

Zerbitzua	Non	Seme-alaba kopurua		
		Lehenengoa %100	Bigarrena%90	Hirugarrena %75
Astegunetako ludoteka (astelehen- ostiral)	Agorrosin(17:00 – 20:00)	45 €	40,5€	33,75€
Larunbatetako ludoteka	Agorrosin(10:00 – 13:00)	20 €	18 €	15 €
Larunbatetako ludoteka	Osintxu(10:00 – 13:00)	20 €	18 €	15 €
Asteguneko ludoteka (astelehenetik ostiralera)	Osintxu(17:00 – 19:00)	30 €	27 €	22,5 €
Udaleku irekiak uztailean (4 urtetik gorakoak)	Bergaran	40 €	36 €	30 €
Udaleku irekiak uztailean (4 urtetik beherakoak)	Bergaran	30 €	27 €	22,5 €

Tasa hau urtekoa da.

B epigrafea: Gizarte Ongizate Zerbitzuak antolatzen dituen informatika ikastaroak

Matrikula 50 € izango da.

ALKATEA  
KONTUHARTZAILEA

IDAZKARIA